


erran zaharrak*Balego eta balitz, elkarrekin dabiltz*

Balitz eta bazan elkarrekin dantzan



Erlea bahintz kofoina bahuke

Balizko eiheran ez da irinik ehotzen**Hi bahaiz eta ni banauk**

xerka dezagun

"Erlea bahintz kofoina bahuke" erranaldi horren aditza(k) azpimarra ezazu.

Nola erraten ahal duzu beste molde batez?

Azpiko olerki hauek irakur itzazu eta aditzak azpimarra.

poesia maite baldin baduzu**Balizko olaren oihartzuna**

«Banu ta banintz,
ezaren irrintz;
bazenu ta bazina,
ametsaren ezina;
balu ta balitz,
mutuaren bi hitz;
bagenu ta bagina,
alperreko ahalegina;
bazenute ta bazinete,
asmo hutsa ezin bete;
balute ta balira, besteen anaiak dira».




Zumeta

Joxe Azurmendi
Zegama-1941an sortua

«Suak erreko ez balu

ta euriak busti ez.
Negarrik ez balitz
ta arratsaldea
gauak itoko ez balu.
Pobreek lurrik balute
ta lurrak maitasunik,
ta esperantzarik zaharrek.
Justiziarik balitz
ta herriak sofritu ez,
gustora bai,
isilduko ginake
ta —zenbat da?,
beste kopa bat»

Joxe Azurmendi
Zegama-1941an sortua



oroit**Baldintzazko adizkiak**

Baldintzazko perpausetan 2 zati dira: **baldintza** eta **ondorioa**

1-Baldintza **erreala**: adizkiak **baldin** eta **BA-** aurrizkia daramatza.

Hasten **baldin banaiz** segituko dut.

baldintza

ondorioa (geroaldian)

Berriz egiten (baldin) **baduzu** kexatuko naiz.

baldintza

ondorioa (geroaldian)

2-**Alegiazko** baldintza:

NOR	
baldintza	ondorioa
Ni banintz	nintzate ke
Hi bahintz	hintzate ke
Hura balitz	litzate ke
Gu bagina	ginate ke
Zu bazina	zinate ke
Zuek bazinete	zinate kete
Haiek balira	lirate ke

NOR-NORK			
baldintza		ondorioa	
singularra (hura)	plurala (haiek)	sg.	pl.
banu	banitu	nuke	nituzke
bahu	bahitu	huke	hituzke
balu	balitu	luke	lituzke
bagenu	bagenitu	genuke	genituzke
bazenu	bazenitu	zenuke	zenituzke
bazenute	bazenituzte	zenukete	zenituzkete
balute	balituzte	lukete	lituzkete

Baldintza eta ondorioa bereiz

1*Baldintzazko adizkia gorritz azpimarra ezazu eta ondorioa berdez.

a- Bizikleta hausten balu, berri bat erosiko luke.

b- Etxe batean bizi banintz, xakur bat hartuko nuke.

c- Denbora bagenu, zinemara joanen ginateke.

2* Baldintza errealean osa : (baldin BA-)

- a- Guk txapelketa irabazten *baldin* ospatuko dugu.
b- Haiek autobusa huts egiten berant helduko dira ikastolara.
c- Zuk baloia etxean ahanzten harrapaketan jostatuko gara.
d- Hura berant jaikitzen ez da tenorez helduko.
e- Ene ordenagailua hausten konpontzera eramanen dut.

3* Osa ondorio proposamen hauekin(geroaldian).

...mendira joan/ ...konpondu/.../laguntza eman/ ...tarta egin/ ...garbitu/ ...laster enoatu

- a- Aro ederra baldin **bada**
b- Bizikleta hausten baldin **bazaio**
c- Laguntza eskatzen **baldin badiozu**
d- Sagarrak ematen **badizkiozu**
e- Ganbera zikina **baldin bada**
d- Alferkerietan **baldin badabil**

4* Alegiazko baldintza. Taula osa ezazu.

NOR		
	baldintza	ondorioa
Ni	<i>banintz</i>	
Hura		litzateke
Gu		
Zu	bazina	
Zuek		
Haiek		lirateke



5* Perpaus hauen bukaera asma ezazu.

- a- Ni aberatsa banintz...
b- Gu arrantzale onak bagina...
c- Ander ez balitz hain malestruka...
d- Zuek ez bazinete hain alferrak...



6* Oker daudenak azpimarra itzazu eta zuzendu.

- a- Ni heldua balitz irakasle nintzateke.
b- Zu ene laguna bazina ni biziki kontent zinateke.
c- Gaur gu eri bazinete, ez ginateke ikastolara joanen.

7* Osa.

- a- Nik zaldi bat oihanera joanen
c- Gu elefanteak Afrikan biziko
d- Hura txoria airean hegaldaka ibiliko

8* Perpausak egin itzazu hitzak ordenatuz.

a- ginateke egonen gu bagina idazkariak bulego batean

b- arbolaz-arbola banintz tximinoa nintzateke ibiliko

c- pilotaria Mikel balitz litzateke ariko frontoian

d- aise harria hirurehun banintz kiloko Perurena nuke altxatuko

9* Perpausak osa eta idatz itzazu baldintza eta ondorio egokiak lotuz.

Baldintzak:

a- Txalupatik erortzen banintz...

b- Arbitroak txistu egiten balu...

c- Berant heltzen bazina....

d- Egia baldin bageneki...

Ondorioak:

... berehala geldituko ginateke.

... dudarik gabe erranen genuke.

... igeri eginen nuke.

... eskolatik kanpo egonen zinateke.

a-

b-

c-

d-

10* Asma itzazu odorio hauei doazkien baldintzak.

a- oporretara joanen nintzateke.

b- mozorro lehiaketa irabaziko nuke.

c- tenorez helduko zinateke.

d- nondik pasatu behar den

jakingo zenukete.

e- printze batekin ezkonduko litzateke.

f- elkarrekin ibiliko ginateke.

11* Perpausak osa itzazu baldintza edo ondorioa asmatuz.

a- Ni suhiltzailea nintzateke.

b- Ni astronauta banintz

c- Hura zirkuan egongo litzateke.

d- Zu tximinoa bazina

e- Gu txinatarrak bagina

f- Haiek errusieraz mintzatuko lirateke.

g- Eukene amatxi balitz

12* Osa ezazu aditz egokiak idatziz.

a- Galtzerdi lodiak banitu, jantziko

b- Leirek betaurrekoak balitu, ezarriko

c- Guk bixkotxak bagenitu, janen

d- Zuk liburuak ekarri bazenitu, irakurriko

e- Zuek baloiak ekarri bazenituzte, denak galduko

f- Haiek galtzak soinean balituzte, kenduko bainatzeko.